

EUSKARA PLANA: UDAL BARNEKO EUSKARAREN ERABILERA PLANA

- **Sarrerakoak**
- **Euskara Planaren helburuak:**
 - **Helburu nagusia**
 - **Helburu estrategikoak**
 - **Atalkako helburu zehatzak**

EUSKARA PLANA: UDAL BARNEKO EUSKARAREN ERABILERA PLANA

- **Sarrerakoak**

Euskararen normalkuntzari dagokionez, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak, azaroaren 24ko 10/1982 zenbakidunak, alde batetik, herritarren hizkuntza eskubideak aitortu zituen eta, bestetik, baita herri-aginteez hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezarri ere.

Halaber, 86/1997 Dekretuak euskararen erabilera normalizatzeko planen esparruak zehaztu zituen eta, aldi berean, jarraibideak finkatu zizkien euskal herri-administrazio guztiei.

Horiek horrela, Sestaoko Udalak, beraz, indarrean dagoen arautegia zein bere eskumeneko eremurako emandako jarraibide eta ordenantzak betez, honako barne plan hauek onartu ditu orain arte:

- Sestaoko Udala Barneko lehen Euskararen Erabilera Plana, 2007ko urtarrilaren 30eko Osoko Bilkuraren Akordio bidez onetsia.
- Bigarren Euskararen Erabilera Plana (2008-2012), 2009ko otsailaren 24ko Osoko Bilkuran onartua.
- Eta, "2013-2017rako Sestaoko Udalaren barneko euskararen erabilera plana", 2014ko urtarrilaren 28an Udalbatza Osoak hartutako erabaki bidez onetsia.

- **Euskara Planaren helburuak**

- **Helburu nagusia: euskararen erabilera bultzatzea eta biziagotzea**, zerbitzu-hizkuntza (herritarrekin eta erakundeekin izaten diren harremanetan erabiltzen den hizkuntza, idatzizko zein ahozko komunikazioetan) eta lan-hizkuntza gisa (Udal langileen artean erabiltzen den hizkuntza), alde batetik, euskararen erabilera bermatu ahal izateko eta, bestetik, herritarren hizkuntza eskubideei erantzuteko.
- **Helburu estrategikoak**
 - **Herritarrekiko harremanetan, euskara zerbitzu-hizkuntza** izan dadin bermatzea, betiere herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatuz. Neurriei dagokienez, Sestaoko Udalaren administrazio-egituran, besteak beste, ele bietako eta euskarazko atalak zehaztu ditugu, Udalak eskainitako zerbitzuak euskaraz zein gaztelaniaz eman ahal izateko.
 - **Euskara beste administrazioekiko harremanetako hizkuntza** izan dadin bermatzea.
 - Hala dagokionean, **euskara administrazio barneko lan-hizkuntza izan dadin bermatzea**, hau da, Sestaoko Udalaren administrazio atalen artekoa.
- **Atalkako helburu zehatzak**

Bestalde, Euskara Planaren helbururik zehatzenak finkatzeko orduan, atalka zehaztu ditugu helburuok. Hortaz, honako hauek dira helburuak zehaztuta dituzten ataletako batzuk:

 - Udala langileen hizkuntza prestakuntza
 - Sestaoko Udalaren kanpo- eta barne-harremanak
 - Hizkuntza paisaia: Udala duen irudiaren osagaiak, bai barruko bai kanpoko ikuspuntutik: errotulazioa, seinalizazioa, iragarkiak, katalogoak, etiketak, zigiluak, tanpoiak...
 - Baliabide informatikoak eta teknologia berriak
 - Hizkuntza irizpideak
 - Hizkuntza normalkuntza ekintzak